



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko martxoaren 4a

31. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren kultur politikari buruzkoa. Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkeztu du (3. or.).
- Jabeldura, Nafarroako irakaskuntza publikoaren eskaintzaren finantzaketarako eta antolaketarako Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da neurri urgente eta zehatzekin jarduteko plan bat sor dezan soldata-arraila gutxitze aldera. Ana San Martín Aniz andreak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da aintzat har dezan bide publikoak txirindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, erakundeak eta oro har gizartea premiatzen dira pertsona-trafikoaren aurka borroka dezaten. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen abenduaren 2ko 24/2014 Foru Legearen defentsa. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak positibotzat jotzen du Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 42/2016 epaia eta beharrezkotzat jotzen du Sinboloei buruzko Foru Lege indarduna indargabetzea. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu autokontsumo elektrikoaren garapenerako ekimenarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatu eta sortzea gaiari buruzko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak (9. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (14. or.).

- Galdera, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, emergentzia sozialeko laguntzearako kontusailari buruzkoa. M.^a Isabel García Malo andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa. Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jardueri buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (20. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, Nafarroako erakundeen zorraren zenbatekoa, horren justifikazioa eta horri aurre egiteko aukerak aztertzea. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak onetsia (21. or.).
- 2016ko martxoaren 29tik apirilaren 1era bitarteko egunetarako lanaldia (22. or.).

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren kultur politikari buruzkoa.

CRISTINA ALTUNA OCHOTORENA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Altuna Ochotorena andreak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren kultur politikari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

torena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Behin ezaguturik 2016. urtean Kulturarako bideratutako aurrekontuak, eta Nafarroako Gobernuak daraman ildo orokorrak sortzen duen kezka dela-eta, proposatzen da Foru Komunitateko kultura arloko politikari buruzko eztabaida bat egitea.

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Gobernuari egindako jabeldura hau Osoko Bilkuran izapidetzea eskatzen da, Gobernuak azal dezan kultura arloko bere politika zein den.

Iruñean, 2016ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Cristina Altuna Ochotorena

JABELDURAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Cristina Altuna Ochotorena

Jabeldura, Nafarroako irakaskuntza publikoaren eskaintzaren finantzaketarako eta antolaketarako Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako irakaskuntza publikoaren eskaintzaren finantzaketarako eta antolaketarako

Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

José Miguel Nuin Morenok, Izquierda-Ezkerra-ko foru parlamentarien elkarteko eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Hezkuntzako kontseilari Mendoza jaunarentzako jabeldura hau aurkeztu du, Eledunen Batzarrean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Jabeldura, Nafarroako irakaskuntza publikoaren eskaintzaren finantzaketarako eta antolaketa-rako Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

UPNren Nafarroako Gobernuak arian-arian gutxitu du, bereziki 2009az geroztik, hezkuntza publikoko inbertsioa, aldiro murrizketak eginez haren finantzaketan. Egoera horren ondorioz, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publikoen jardute-ahalmena murriztu da, eta lurralde-desoreka areagotu da.

Beste alde batetik, aplikatu diren zenbait araudik desordena sortu dute eskola-antolamenduan, ikasleen eskolatzeari, ikastetxe berriak eraikitzeko politikari eta, oro har, hezkuntza publikoaren eskaintzari dagokienez.

Irakaskuntzako sistema publikoak Nafarroako hezkuntza sistemaren ardatza izan behar du; hor-taz, behar adina baliabide izan behar ditu honako- en bermerako bere eginkizuna betetzeko: eskola adineko populazio osoarentzat legeak nahitaezko- tzat ezartzen dituen hezkuntza edukiak transmiti- tzea; ikasleei prestakuntza integrala ematea, gizarteratzeko eta laneratzeko; gure gizartearen garapen zientifiko eta teknologikorako prestakun- tza zientifikoa eta humanistikoa ematea; eta herri- tar guztien aukera-berdintasuna hezkuntza eskuratzeari dagokionez, diskriminazio oro ekidi- nez, dela jaiotzarengatik, jaioterriarengatik, bizile- kuarengatik, sexuarengatik, erlijioarengatik nahiz beste edozein arrazoiarengatik.

Hori horrela izan dadin, Nafarroako Gobernuak apustu garbi eta irmoa egin behar du irakaskuntza publikoaren alde, berori garatzearen alde eta jabe- tza publikoko ikastetxeak sustatzearen alde.

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da neurri urgen- te eta zehatzekin jarduteko plan bat sor dezan soldata-arraila gutxitze aldera.

ANA SAN MARTÍN ANIZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Ba- tzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana San Martín Aniz andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri urgente eta zehatzekin jarduteko plan bat sor dezan soldata-arraila gutxitze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale- an argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ana San Martín Aniz andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Gizonen eta emakumeen soldaten arteko arrail gisa ezagutzen da gizonen eta emakumeek jasotzen dituzten ordainsarien arteko diferentzia, ordu bakoitzeko diru-sarrera gordinen artean dagoen batez besteko diferentziaren arabera kalkulatuta.

Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrail hori existitzen da nahiz eta emakumeek gizonen baino emaitza hobetoak lortzen dituzten eskolan eta unibertsitatean. Batez beste, EBko emakume gazteen % 83k egiten dituzte gutxienez ere bigarren hezkuntzako ikasketak; gizonen kasuan,

berriz, % 77,6k. Gainera, emakumeek EBko unibertsitate-gradudunen % 60 egiten dute.

Gizonen eta emakumeen soldaten arteko diferentziak lan-merkatuan gertatzen diren diskriminazioaren eta desberdinkerien erakusgarri dira, zeinek bereziki emakumeei eragiten baitiete.

Hona datuak, UGTk 2015eko maiatzean egindako azterlan baten arabera: emakumeen eta gizonen soldaten arteko arraila % 29,57koa da Nafarroan; horrek esan nahi du nafar emakumeek urtean 8.170 euro gutxiago jasotzen dituztela batez beste.

Sindikatuak egindako azterlanak ondorioztatzen du emakume batek urtean 79 egun gehiagoz lan egin beharko lukeela gizon batek adina irabazteko, eta emakumezko enplegatu batek gizonetzko batek baino 11 urte eta erdi gehiago kotizatu beharko lituzkeela, balio bereko lan batean, pensio bera kobratzeko.

Horregatik guztiagatik eskatzen dut honako mozio hau Osoko Bilkuran onartzea eta izapidetzea:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea neurri urgente eta zehatzekiko jarduketa-plan bat egin dezan, parte-hartze publiko handiarekin garatua, gizonen eta emakumeen soldaten arteko arraila murrizteko.

2. Plan horrek adierazle-sistema bat eta planaren emaitzen bilakaeraren jarraipen-sistema bat izan ditzan, eta aurreikus dezan urteroko txosten bat egitea, planaren aplikazioari eta emaitzei buruzkoa, zeina Legebiltzar honi igorriko baitaio urte natural bakoitzaren lehen hiru hilabeteen barruan, Parlamentuak haren berri izan eta eztabaidatu dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana San Martín Aniz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aintzat har dezan bide publikoak txirrindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita aintzat har dezan bide publikoak txirrindularien zirkulaziorako egokitzea bermatuko duten neurriak landu eta onesteko beharra.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldekoko eledun María Chivite Navascués andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Bizikleta munduan gehien erabiltzen diren ibilgailuetako bat da. Bi gurpileko ibilgailu motorgabea errentagarria da ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspuntutatik; horrez gain, eraginkorra eta osasungarria ere bada. Herrialde aberatsen multzo oso txiki batean baino ez da murriztu haren erabilera denboraren poderioz, petrolio-xahuketan oinarritutako mugikortasun-eredu bati bidea emateko.

Hala ere, pixkanaka-pixkanaka ikusten ari gara hori galgarria dela, planetaren natur baliabideak etorkizuneko belaunaldientzat kontserbatu nahi dituen garapen iraunkoraren kontrako aldera doana. Horregatik, gaur egun bizikleta mugitze-aukera tinkoenetako bat da planetan, batez ere hiri-eremuetan. Izan ere, horietan europarren % 73k uste dute bizikletak lehentasunezko tratua izan behar duela autoaren aurrean. Horren adibidea da Europan autoz egiten diren joan-etorrien erdiak 5 km-tik beherakoak direla (bizikletaz joanez gero, ordu erdi baino gutxiago behar da). Hau

da, aukera errealista bat da bai hirian barna ibiltzeko bai hiri artean mugitzeko, kasuen arabera, eta batzuetan oso erabilgarria da garraio publikoarekin konbinatuz gero.

Bestalde, jakin badakigu txirrindularitza neurritz egitea sendabide aparta dela, obesitatea eta hipertentsioa ez ezik, arteria koronarioetako gaixotasunak ere eraginkortasunez saihesteko; azken horiek, heriotza arrazoi nagusietako bat herrialde garatuetan.

Dena den, "aurrerapen"aren okerreko ikuskera batek bizikleta erabiltzea eragozten du, beharrezkoa ez den teknifikazioarekin eta energia-xahuketarekin identifikatzen baitu aurrerapena. Horrek ekartzen du norberak erabiltzeko garraio-bide motordunen (autoa, zilindro-bolumen txikiko eta handiko motozikletak...) nagusitasunean oinarritzen den mugikortasun-eredua, nahiz eta garraio-bide horiek energia zikinak erabili eta zirkulazio-sistema konplexua sorrarazi (errei askotako bideak, autobiak, abiadura handiko bideak, azeleazio-erreak, maila ezberdinetan dauden pasaguneak...) sorrarazi; zirkulazio-sistema horrek arriskutsu egiten du bizikletaren erabilera, eta bizikletan ibiltzeko asmoa bera ere kentzen du (kirola egiteko edo eguneroko garraio-bide gisa erabiltzeko).

Beste ikuspegi batetik, adierazi behar da gero eta handiagoa dela bizikletadun turismoa, bai txirrindularitza profesionalari begira entrenatzeko bai "zikloturismo" deritzonerako, hiriko, errepideko eta mendiko modalitateetan. Turista horiek gure errepideetatik dabilta, eta ez diegu behar beste segurtasun-bermerik eskaintzen gure azpiegituretan. Horregatik, gaur egungo zailtasunak gainditzeko eta bizikleta-erabiltzaileen segurtasuna hobetzea ahalbidetzen duten neurriak behar dira, ibilgailu horren erabilera orokortzeko, onuragarria

baita ingurumen orokorrerako zein norberaren osasunerako.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aintzat har dezan bide publikoak bizikleten zirkulaziora egokitzen direla bermatzen duten neurriak prestatu eta onetsi beharra, denok erosotasunez eta segurtasunez baliatu ahal izateko horietatik bizikletan ibiltzeko daukagun eskubidea. Neurri horiek honako hauek bildu beharko lituzkete: seinaleztapen egokia, bide publikoak txirrindulariek erabiltzeko modukoa egiten duten diseinu-arauak eta, beharrezkoa denean, txirrindularientzako berariazko espazio-erreserba (bidegorriak).

2. Neurri horiek txerta ditzan tokiko garraio planetan eta hiri antolamenduko planetan.

3. Udal eta eskualdeekin lankidetzan, Nafarroako "Bizikleta Bideen Oinarritzko Sarea" diseinatzen eta abiarazten has dadin. Horretarako abiapuntua landa-bideak berreskuratzea izanen da, baita eskualdeko errepideen sarea txirrindulariek erabiltzeko egokitzea ere.

4. Eskoletako hezkuntza-programetan gehitu ditzan bizikletari lotutako bide- eta ingurumen-hezkuntzako elementuak.

5. Beharrezko araudi aldaketak egin ditzan, Nafarroako oinarritzko eta tarteko mailetak errepideak eraikitzeke proiektuek txirrindularientzat berariazko espazioa erreserbatu beharra ezartzeko, hori ezinezkoa izatearen arrazoizko justifikazio nahikorik egon ezean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, erakundeak eta oro har gizartea premiatzen dira pertsona-trafikoaren aurka borroka dezaten.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Pertsona-trafikoaren aurka borrokatzea, eta, bereziki, sexu-esplotazioa helburu duenaren aurka, toki, nazio eta nazioarteko mailan.

2. Sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-trafiko delitua eta eskubide-urraketa dela ikusaraztea, Nafarroako Foru Komunitatean bertan ere gertatzen dena, eta gure gizartean dagoen desberdinkeriararen beste adibide bat dela ulertaraztea.

3. Emakumeen eta gizonen artean bidezko harremanak sustatzea, herritar guztien arteko errespetua eta berdintasunezko tratua defendatzen dituztenak, eta genero-indarkeriarako joera duen edo hori irauarazi edo sustatzen duen edozein adierazpen eta ekintza saihestu behar dela nabarmentzea.

4. Sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-trafikoaren biktimen ongizateari, osasunari, bizi-

raupenari eta aukerei eraso egiten dien edozein jardun desagerrarazten saiatzea.

5. Berdintasunezko gizartea, ez genero-indarkeriarik ez sexu-esplotaziorako pertsona-trafikorik ez duena, defendatzen duten ekintzak sustatzea, lan-estrategia argiak hartuz eta erabilgarri dauden baliabideen koordinazio hobea dakarten ahaleginak batuz.

6. Oro har Nafarroako gizartea sentsibilizatzea honako gai honekin: zer da sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-trafiko, eta zer dakar berekin? Izan ere, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak irauarazten dituen esklabotasun mota bat da.

7. Sexu-esplotazioa helburu duen pertsona-trafikoaren existentzia, kontsumo eta sustapenari aurka egitea Nafarroan, pertsona guztien –eta, bereziki, trafikoaren biktima diren emakumeen– giza eskubideak defendatuz.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen abenduaren 2ko 24/2014 Foru Legearen defentsa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen abenduaren 2ko 24/2014 Foru Legearen defentsa.

2. Nafarroako Parlamentuak gonbit egiten die Nafarroan dauden kanabis-klub eta -elkarte guztiei mekanismoak ezar ditzaten, arlo horri buruzko berariazko estatu-araudirik ez dagoen bitartean, autorregulaziorako, jardunbide egokietarako eta administrazioarekin lankidetzan aritzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gorteak, Estatuko Gobernu eta Justizia Administrazioa premiatzen ditu aurrerapauso irmoak eman ditzaten, arauketa nahiz interpretazio juridiko sendo bat egiteko eta erabakitasunez aurrera egin ahal izateko, beste herrialde batzuk egiten ari diren moduan, kanabisaren kontsumoa arautzearen bidean, betiere osasunari begira arriskuak dakartzan produktu bat delako ikuspegitik.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak positibotzat jotzen du Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 42/2016 epaia eta beharrezkotzat jotzen du Sinboloei buruzko Foru Lege indarduna indargabetzea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Lehenengoa.- Nafarroako Parlamentuak uste du positiboa dela Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiak otsailaren 22an emandako epaia, Berriozarko Udalak 2015eko abuztuaren 27an Euskal Autonomia Erkidegoaren bandera ofiziala jartzearen aurka Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak aurkeztu zuen errekurtsioa ezetsi duena, berretsi egiten baitu gure Komunitateko bizikidetzari eta sinbolo-aniztasunarekiko errespetuari zuzendutako udal jarduketa bat .

Bigarrena.- Bizikidetzeta eta aniztasunarekiko errespetu horren mesedetan, Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela Sinboloei buruzko Foru Lege indarduna indargabetzea eta lege berri bat sustatzea, baztertzaila ez dena eta herritarren asmo zilegi guztiak biltzen dituen, sinboloei buruzko tolerantzia- eta integrazio-politika bat garatu ahal izateko.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu autokontsumo elektrikoaren garapenerako ekimenarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bat egiten duela alderdi politikoei, elkarte ekologistek, energia berriztagarrien enpresa elkarteek eta erakunde sindikalek eta sozialek sinatu duten ekimenarekin. Bertan autokontsumoa sustatzeko eta haren garapenarekin konpromisoa hartzeko neurri urgenteak biltzen dira; besteak beste, Espainiako Gobernuaren lehenengo 100 eguneko Errege Lege-dekretu bat onestea, eguzki-zergea indargabetzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak energia berriztagarrien sektorea estrategikotzat jotzen du Foru Komunitatearentzat.

3. Honako hauek Nafarroako Parlamentuak ere aintzatetsiak dira: zordunketarik gabeko autokontsumorako eskubidea , hainbat kontsumitzailek instalazioak partekatze aukera, administrazio tramiteak sinplifikatu beharra eta zehapen araubidearen egokitzapena.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatu eta sortzea gaiari buruzko Osoko Bilkura monografikoak onetsitako erabakiak.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2016ko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroan enpleguaren egoera aztertu eta hura sustatu eta sortzeari buruzko ondorengo erabakiak onetsi zituen:

Lehenbizikoa. 1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enplegu politika aktiboak indartu eta alda ditzan, funtsezko elementuak baitira langabezia-egoeran dauden pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eta horiek gizarteratzeko zein laneratzeko. Halaber, landunak prestatu eta haien gaitasunak hobetu ditzan premiatzen du, halako moldez non haiek enpleguari eusteko eta horretan igotzeko trebetasunak indartuko baitira eta Nafarroako enpresak lehiakorragoak izatea lortuko baita.

Horretarako, hauxe egin beharko du:

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerbitzu publikoak indartu.

– Langileentzako lan-prestakuntzako programak gehitu; eta, bereziki, langabezia-egoeran dauden pertsonentzakoak.

– Hezkuntza Departamentuarekiko koordinazioa hobetu, lanbide heziketaren arloan baterako programak eginez.

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zerbitzu publikoen, gizarte-eragileen eta Nafarroako enpresen arteko koordinazioa indartu, gainjartzerik ez gertatzeko, laneratze-mailak handitzeko eta laneratzeko orduan aukera-berdintasuna hobetzeko.

– Langabe guztiei banakako arreta eman, eragile guztiek koordinatua, haien prestakuntza, gaitasunak eta gizarteratze- zein laneratze-ibilbideak hobetzeko.

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Zerbitzuen arteko koordinazioa areagotu, pertsona eta kolektibo ahulenen eta enplegarritasun zaila daukatenen gizarteratze- eta laneratze-mailak hobetzeko.

– Enplegu Sozial Babesturako baliabideak eta enplegua sortzeko bestelako mekanismoak eta pizgarriak gehitu, bereziki zuzentzen zaizkien kolektibo ahulenei (hala nola luzaroko langabeak, bazterketa egoeran dauden pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak...) eta langabezia-tasa handiak dituzten beste kolektibo batzuei (adibidez, emakumeak eta gazteak), arreta berezia jarrita langabezia-maila handienak dituzten Nafarroako eremuetan.

– Gazte enpleguari buruzko neurriak indartu berariaz, haien langabezia-tasa handia jaisteko eta emantzipazioa errazteko asmoz.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du langabeziarako babes sozialeko politikak eta enplegu politika aktiboak indartu ditzan, gizarteratze eta laneratzearen mailak hobetzeko eta langabe guztiei babes sozialeko gutxieneko maila bermatzeko moduan.

Horretarako, beharrezkoa da Estatuak indartu dezan autonomia erkidegoek kudeatzen dituzten enplegu politika aktiboen finantzaketa, eta, halaber, langabeziaren ondoriozko kotizaziopeko eta kotizazio gabeko prestazioak nabarmen hobetu ditzan, langabe guztiei gutxieneko babesa bermatzea.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Enplegu Plan berri bat presta dezan, enplegu politika aktiboak hobetzeko eta aldatzeko ildo guztiak taxutu eta zehaztuko dituen. Plan hori modu irekian eta parlamentu-taldean, gizarte- eta ekonomia-eragileen eta gizarte zibil osoaren partaidetzarekin prestatu beharko da.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroaren espezializazio adimenduneko prozesua ahalik eta lasterren abiaraz dezan, aurretik hitzeman zuen bezala, eta hori egin dezan ekonomiaren, gizartearen, jakintzaren eta erakundearen arloetako eragileak biltzen dituen partaidetzazko prozesu baten buruzagi jardunez, estrategia zehazteko fasean ez ezik, ezarpenaren jarraipen fasean eta haren emaitzen etengabeko ebaluazioaren fasean ere bai. Prozesu horren arrakasta-adierazle nagusiak enpleguaren bolumena eta kalitatea izan beharko dira. Horretarako, Nafarroako Gobernua premiatzen da parlamentu-taldeek beren ekarpenak egin ahal izateko beharrezkoak diren komunikazio- eta partaidetza-bideak proposa ditzan.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Espainiako Estatuan indarrean den lan erreforma indargabetzea erreklama dezan bidezko foro guztietan.

2. Ahalik eta lasterren azterlan tekniko, juridiko eta ekonomikoak presta ditzan, beharrezkoak direnak zera bermatzeko, Nafarroako administrazioe-

tan lana banatuz enplegua sortzeko urteroko Programa bat bideragarria dela.

3. Foru Komunitateko enpresa guztietan –publikoak zein pribatuak– genero-berdintasunaren arloko araudia betetzen ote den zorrotz zain dezan; haietako langileen lana, familia eta arlo soziala bateragarriak egitea bermatzeko behar diren neurri guztiak abiaraz ditzan; eta enpresa pribatuei lagun diezaien ildo horretan egiten dituzten jarduketetan.

4. Prestakuntza, orientabide, lagun egite eta lan bitartekotzako neurriak eta izaera sozioekonomiko edo fiskaleko beste batzuk bultzatuz, biztanleriaren baitan zailtasun gehien topatzen dituzten pertsona guztiak laneratzea nahiz haiek lanari euts diezaioten lortzeko helburua daukatenak. Honako kolektibo hauek zainduko dira bereziki:

- Desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten pertsonak.
- 45 urte baino gehiago dituzten pertsonak.
- Prestakuntzarik gabeko pertsonak.
- Derrigorrezko hezkuntza gainditu ez duten gazteak.
- Hizkuntz zailtasunak dituzten pertsonak.
- Gizarteratze zailtasunak dituzten pertsonak.

Bosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du:

1. Lehendik dauden enpresei lagundu diezaien ahalik eta enplegu gehien eta ahal den kalitate handienekoari eusten eta hori sortzen. Bereziki, eginkizun hauetan lagunduko die:

- Inbertsiorako eta zirkulatzailerako finantzaketa eskuratzeko aukerak hobetu, enpresa txiki eta ertainei bereziki lagunduta.
- Berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa –kudeaketa, antolaketa, marketina eta komertzializazioa– sustatu, aurrekontu-konpromiso iraunkor eta goranzko baten bidez.
- Lankidetzakultura bat sustatu eta ezarri, beste bide batzuen artean klusterren eta berrikuntzari eta internazionalizazioari laguntzeko tresna ezberdinen bitartez.
- Nafarroa osoko enpresa traktoreen alde jokatuz–neurri handi batean, industria arlokoak–, horiei finkatzen laguntzeko eta aberastasun- eta enplegu-maila handiagoak sortzen ahal dituzten proiektu guztiak sustatzeko.
- Tresnak eta programak ezarri, gero eta enpresa gehiagori finkatzeko eta handitzeko

tamaina egokia hartzen laguntzen dietenak. Horrela, erabakigunea foru lurraldean daukaten nolabaiteko tamainako enpresak finkatu eta horien kopurua gehituko da.

– Gure erkidegoko hainbat tokitan antzemandako elektrizitate-hornidurako arazoak konpontzeko lan egin.

– Banda zabala ahalik eta lasterren hedatu foru lurralde osora.

– Prozedura administratiboak izapidetzearen arloan etengabeko hobekuntza bultzatu.

– Zuzendaritza- eta kudeaketa-sistema aurreratuak sustatu, enpresen gizarte-erantzukizuneko parametroetatik; horien arabera, ulertzen da enpresa proiektu partekatua dela, interes-talde ezberdinei erantzun nahi diena.

– Enpresaburuek eta langileek elkarrekin hitz egiteko ahalik eta giro onena bermatzen saiatu.

2. Enpresa-ekimena eta ekintzailtza indartu eta babestu, haien garrantzi soziala aitortuta, eta bereziki:

– Ekintzaileek, autonomoek eta enpresaburu txikiek kreditua errazago eskuratzeko ahalbidetzen duten tresnak ezarri.

– Etengabeko hobekuntzaren aldeko jarrera batekin lan egin, lurralde osoan ahalik eta kalitate maila handienak eskaini ditzan ekintzaileentzat, autonomoentzat eta enpresaburu txikiakentzat daukagun informazio-, arreta- eta laguntza-sareak. Ekonomia sozialak arlo horretan duen eginkizuna ere aitortu.

3. Modu proaktiboan lan egin enpresa berriak erakartzeko, horretarako berariazko baliabideak erabilita.

4. Ekonomia sozialeko enpresak sustatu, aurrera eramane eta horietan sakondu, enplegu egonkorraren sortzaile diren aldetik, lurraldearekin, pertsonekin eta partaidetzazko kudeaketa-eredu demokratikoarekin duten konpromisoaren ondorioz.

5. Ekonomia zirkularra sustatu Nafarroarako ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-garapenerako alternatiba gisa; izan ere, lehiakortasun-aukerak sortzen ditu gure enpresentzat, baita kalitatezko enplegua sortzeko ere.

Seigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du I+G+b arloko inbertsio publikoa bikoitz dezan Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, legegintzaldiaren amaieran Europaren helburura, BPGaren % 3ra, iristeko.

Testuinguru horretan, Nafarroako Gobernuak gure erkidegoaren mapa teknologiko bat egin beharko du, haren bidez aukera izan dadin Nafarroak berrikuntzaren arloan dituen gaitasunak definitzeko, I+Garen arloko gabeziak dauden sektore etorkizundunak identifikatzeko eta teknologia beretan inbertsio eta ahalegin bikoitzak ez egiteko. Gainera, inbertsio horien itzulkin soziala neurtzeko modua emanen duten adierazleak ezarri beharko ditu, I+Garen efizientzia hobetze aldera, ahalegin handiagoa eginez enpleguaren hazkundearen bitartezko itzulkin hori handiagoa den zereginetan.

Gainera, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak plan berezi bat susta dezala, unibertsitateen, ikerketa zentro publiko zein pribatuen eta sektore produktiboaren arteko lankidetzaren sustatuz, hartan berariazko arreta jarrita ezagutzaren eskualdaketa eta zirkulazio moduetan; eta hazkunde ekonomiko ekartzeko ahalmen handia duten enpresa berritzaile berrien garapenari eta finkapenari lagun diezaiola, lankidetzaren publiko-pribaturako pizgarriak emanez.

Zazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du goi mailako hezkuntza-eredua azter dezan eta hura egungo eta etorkizuneko lan-merkatuen beharretara egokitu dezan, kontuan hartuz goraka ari den garapen ekonomikoaren beharrezkoak, eta beharrezkoak diren trebetasun pertsonalen eta gaitasun profesionalen multzoa identifikatuz eta konzeptualizatuz.

Zortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nafarroako Administrazio Publikoaren berrikuntza eta egokikortasun teknologikoa susta ditzan, aurrerabiderako eta enplegurako faktore proaktibo bezala.

Horretarako, honako hauek egin behar dira:

- Departamentuen arteko lankidetzaren sustatu, funtzionamendu gastuak gutxitzeko; eskala-ekonomiak sortu; eta baliabide publikoak lehentasunez herritarrei arreta ematera biderarazi.

- Funtzio publikoan lan egiten dutenek azken urteetan galdu dituzten eskubideak pixkanaka berreskuratu, eta behar diren araugintza-neurriak hartu, behin-behineko moduan lan egiten dutenen egoera prekarioari konponbidea emateko.

- Behar adina enplegu eskaintza publiko onetsi, administrazio publikoek profesional onenak edukitzea bermatuko duten sistemekin.

- Langile publikoen jardura ebaluatzeko sistematik ezarri, halako moduz non beren eginkizuna ongi betetzeak haien arduraren eta profesionaltasunaren aitortza ekarriko duen.

Bederatzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lanbide-orientazio pertsonalizatua eskubide gisa berma dezan eta behar diren jarraibide eta zerbitzuak eskain ditzan langabezia dauden pertsonak egoki lanera daitezten lortzeko.

Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzua giza baliabide eta baliabide tekniko gehiagorekin indartu beharko da, eta apustu egin beharko da arlo publikotik politika aktiboak eta prestakuntzakoak bultzatzeko, enplegarritasuna eta lan bizitzan zehar gaitasunak hobetzea errazteko.

Ahalegin horrek aukera emanen du politika aktibo berritzaileak garatzeko, hain zuzen ere honako xede hauek izanen dituztenak:

- Pertsona helduentzako edo lan-merkatuan berriz sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako prestakuntza.

- Prestakuntzaren arloko bigarren aukera.

- Prestakuntzaren arloko berrikuntza.

- Enplegurako prestakuntza.

- Kontratazio-konpromisoa biltzen duen prestakuntza.

- Lanerako orientazio orokorra.

- Lana duten pertsonentzako prestakuntza, beren lan-bizitza osoan zeharrekoa (lifelong learning).

- Gaitasun-egiaztapena.

Hamargarrena. Nafarroako Parlamentuak honakoa erabakitzen du:

1. Adieraztea Foru Komunitatearen garapen ekonomiko eta sozialaren zerbitzura lan egiten duen Banku Publikoa sortu beharra dagoela Nafarroan, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du helburu hori gara eta bete dezan.

2. Ekonomiaren eta lanaren esparruan gizonen eta emakumeen arteko ezberdinkeraren aurka modu integralean jardun beharrezko garrantzia eta urgentzia azaldu eta horiei buruz ohartaraztea. Halaber, Nafarroako Gobernuak premiatzea enpresan eta lan-merkatuan emakumeenganako bereizkeriaren aurkako berariazko jarduketaren plan bat presta dezan.

3. Enplegu planen esparruaren barnean, Nafarroako Gobernuak premiatzea gazteen langabeziaren eta prekarietatearen aurka borrokatzeko berariazko planak gara ditzan.

4. Adieraztea beharrezkoa eta urgentea dela Nafarroako Gobernuak babesa eman diezaien

lurraldearekin, pertsonekin eta enpleguarekin konpromisoa hartzen duten enpresa- eta ekonomia-ereduei (ekonomia soziala, kooperatiboa, elkarlanekoa...), eta enpresentzako laguntzei eta diru-laguntzei buruzko foru araudia alda dezan, halako moduz non entitate onuradunek ez deslokalizatzeko konpromiso zorrotzagoak eta eraginkorragoak hartuko dituzten beren gain.

Hamaikagarrena. Nafarroako Parlamentuak honakoa erabakitzen du:

1. Adieraztea beharrezkoa dela lan-erreforma indargabetzea, eta Nafarroako Gobernuak premia-tzea erreforma hori errefusa dezan, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta sektore publikoaren esparruan ez dezan aplikatu.

2. Estatuko Gobernuari eta Gorte Nagusiei exijitzea Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua zuzendu dezaten, administrazio publikoek aukera izan dezaten, dagokien aurrekontu politikaren esparruan, beharizan ekonomiko eta sozial guztien gainean jarduteko.

3. Estatuko Gobernuari eta Gorte Nagusiei exijitzea Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa indargabetu dezaten, administrazio publikoek aukera izan dezaten, dagokien aurrekontu politikaren esparruan, beharizan ekonomiko eta sozial guztien gainean jarduteko.

4. Europar Batasunean dagoen zerga- eta lan-arloetako dumpinga gaitzestea, eta Europar Batasuna bera eta bertako kide diren estatuak premia-tzea hori babesten eta ahalbidetzen duten arauak aldatu eta indargabetu ditzaten. Nafarroako Parlamentuak funtsezkotzat jotzen du Europar Batasunean enpresa-etekinen eta kapital-errenten gainerako araudi fiskal justu eta progresibo bat adostea eta onestea, eta, halaber, enplegua eta lan eskubi-deak babestuko dituen lan araudi bat.

Hamabigarrena.

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen duen plan bat taxutu dezan, gizarte-eragileekin eta Nafarroako Parlamentuarekin batera, aberastasuna eta lana banatzera bideratutako ekimenak abiarazteko, xedea izanik lanaldiaren murrizketa orokor bat, lanaren banaketa eta aparteko orduen kentzea.

2. Nafarroako Parlamentuak administrazio publiko guztiak premia-tzen ditu laguntzak, obrak eta zerbitzuak esleitzeko eta kontratatze-prozesu guztietan sakontze-urratsak egin daitezzen gizarte-klausulen ezarpenean, kalitatezko enplegua bermatzeko eta lan prekarietatea ekiditeko.

3. Nafarroako Parlamentuak erabaki du beharrezkoa dela “Behin-behinekotasuna gutxitzeko plana, enplegu publikoaren egonkortasuna eta kalitatea lortzeko” delako bat onestea. Nafarroako Gobernuak aurkeztuko du, hura eztabaidatua eta gero bozkatua izan dadin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen duen enpresei ematen zaizkien onura, diru-laguntza eta laguntza guztiak kalitatezko enplegua mantentzearekin eta garatzearekin lot ditzan eta hori bete ezean horiek Administrazioari itzultzeko bermeak taxutu ditzan.

Hamahirugarrena. Nafarroako Parlamentuak uste du jarduera endogenoa dela kalitatezko enplegua sortu eta mantentzea hobekien bermatuko duena, eta horregatik Nafarroako Gobernuak premia-tzen du, eta halaber konpromisoa hartzen du, hezkuntza publikoaren sistema eta gainerako zerbitzu publikoak indartzeko, eta horrekin batera, ekintzaitzarako eta horren garapenerako testuinguru mesedegarrien (NUPeko ikerketa, merkaturatze-bideak, klusterrak, banda zabala eta abar) eraikitze-lanerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak sustatzeko.

Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du “Slow Food”, “Km 0 produktuak” eta elikagai-subiranotasunaren alde, ingurumenaren aldetik jasangarria den garapen baterako formula gisa, kalitatezko kontsumoa eta lehen sektorearen eta aldiriko merkataritzaren garapena bermatze aldera.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du behar diren neurri legal eta juridikoak abian jar ditzan ditzan, lehen sektorea sektore estrategiko gisa sustatzeko. Hartara, pizgarriak emanen dira zuzeneko salmentarako eta aldiriko merkataritzarako bideak sortzeko, Nafarroako produktuen kontsumoa eta kalitatezko enplegua ahalbidetzeko.

Hamalagarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du neurri zehatzak har ditzan, ekonomia sozialeko enpresek hogeita bost urtetik beherakoak (gazte bermeko kolektiboa) eta gizarteratze-errenta jasotzen duten pertsonak kontrata ditzaten sustatzeko.

Hamabosgarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premia-tzen du gazteen enplegarritasuna erraztu dezan, belaunaldien erreleboa bultzatu dezan, ekintzaitzeta sustatu dezan, lan-esparruaren eta hezkuntza-esparruaren arteko bateragarritasuna sinpletu dezan eta, halaber, gazteen enplegua ahalbidetzeko neurriak har ditzan.

Hamaseigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan langabeziari aurre egiteko oro har hartzen dituen neurriez gain neurri zehatzak har ditzan urgentziaz, enplegu ezak eta iraupen luzeko langabeziak gehien ukitutako eremu eta herrietan haiei aurre egiteko.

Hamazazpigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoan lan egiten duten enpresak finkatze aldera lan egin dezan, eta ez ditzan jar behar ez diren trabak, haien iraupena arriskuan jar dezaketenak.

Hemezortzigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontuan har ditzan, Enplegu Plan berria garatzean, sexuaren arabera xehakaturiko lanbide-datuak, Nafarroako langabeziaren errealitatea ezagutu ahal izateko, diskriminazio-egoera eta desberdinkeriazko tratua jasaten duten emakumeei dagokienez. Horretan oinarrituta, Gobernuako departamentu guztietan ezartzen diren enplegu-neurri aktiboak, eta enple-

gua sustatzeko beste edozein neurri ere, doitu beharko dira, era horretan bizitza pertsonala eta familiarra emakumeen enpleguarekin bateragarri izatea sustatzeko (garrantzi berezia emanaz aitasun-baimenaren luzapenari eta aitatasun ardurakidea sustatzeko kanpainei); bereziki, zaurgarrien diren gizarte-multzoetan, hala nola berrogeita hamar urtetik gorako emakumeak, amatasunerako adin egokian daudenak eta amadun familia gurasobakarrak.

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusten diren neurriak aplikatu ditzan, aitatasun-baimenei dagokienez.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik WhatsApp bidezko herritarrekiko komunikazio-zerbitzua berriro aktibatzeke?

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak ba al daki Iberdrolaren hornidura elektrikoan mikroetenak gertatzen direla etengabe, besteak beste, Fitero, Cintruénigo, Fontellas eta Corella inguruetan? ·

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an.

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, gizarteratze-errentarako eta San Juan de Dios Klinikarekiko hitzarmenerako programa edo kontusailen 2015. urteko behin betiko zenbatekoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Juan Luis Sánchez de Muniáin foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak kontseilari Aranburu jaunak idatziz erantzun dezan:

- Zein da, 2015eko aurrekontu-betetzea itxi ostean, hurrengo programa edo kontusail hauen azken zenbatekoa?

- Gizarteratze-errenta.

- San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna.

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruzkoa.

M.^a ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Isabel García Malo andreak aurkeztutako galdera, emergentzia sozialeko laguntzetarako kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, "Emergentzia sozialeko laguntzak" kontusailari buruzko honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

1.- 2015ean neurri horretara bideratutako 2 milioien betetze-maila.

2.- Laguntza horien barruan sartzen diren kontzeptuak, laguntza-kopurua kontzeptuz kontzeptu zehaztuta.

3.- Zehazki, hornikuntzetarako (argindarra, gasa...) zenbat laguntza eman dira kontusail horren kargura? Zenbat hornikuntza-mota bakoitzerako? Zenbat laguntza eman dira xede berarekin laguntza berezien kargura? Hori guztia, hilabetez hilabete zehaztuta.

4.- 2015ean ebatzitako espediente-kopurua.

5.- Ziurta al dezakezu nafar guztien aukera-berdintasuna bermatu dela laguntza horien finantzaketa eskuratzeari dagokionez? Ziurta al dezakezu aukera-berdintasun hori, kontzeptu ezberdinen finantzaketa eskuratzeari dagokionez?

7.- Oinarrizko Gizarte Zerbitzu ezberdinentzako finantzaketaren banaketa. Oinarrizko Gizarte Zerbitzu bakoitzak jasotako finantzaketaren betetze-maila.

8.- Ba al da Oinarrizko Gizarte Zerbitzurik xede horretarako jasotako dirua gastatu ezin izan duenik, diru hori jasotzeko baldintzaren bat bete izana frogatu ezin izateagatik; esate baterako, eskaizailleek banku-kontuetan daukaten dirua?

9.- Hori horrela baldin bada, gainerako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek nola frogatu dute baldintza hori betetzen dutela?

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an

Foru parlamentaria: Maribel García Malo

Galdera, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, Garraioaren Hiriko desjabetze prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Orain dela gutxi ezagutu da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai bat, "Garraioaren hiria" izenez ezagutzen denaren desjabetzeari buruzkoa. Ikusita epai horrek aurrekontuan izan dezakeen inpaktuaren eta Gobernuko lehendakariak eta lau alderdietako parlamentu-eledunen batek egindako adierazpenen garrantzia, gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Aipatutako epaiaren kopia.

2. Garatutako desjabetze-prozesuari dagokionez, noiz hasi zen, ea administrazio-prozedurak ezartzen duenari jarraituz egin zen, eta balio justua nola ezarri zen.

3. Desjabetze-prozesuan ezarritako eta gordailatutako edo ordaindutako prezioak zeintzuk izan ziren, eta Garraioaren Hiriaren lau faseetan ordainketa horiek zein datatan egin ziren.

4. Ea daukaguen informazioaren arabera uste duzuen Desjabetze Epaimahaiak Nafarroako Gobernuarekiko autonomiaz eta independentziaz ezartzen dituela bere prezioak.

5. Ea ezagutzen duzuen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak horri buruz emandako lehen

epaiaren zentzua eta epai horrek ezarritako balioa.

6. Ea ziur dakizuen ezen, Auzitegi Gorenaren epaiaren ondoren eta Salak peritu berri bat izendatu ondoren –Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren epai horren bidez ezarritako prezioaren bikoitza baino gehiagokoa ezarri zuena–, soilik zeudela Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako aldeko epai bat eta Auzitegi Gorenaren epai bat, zeinak ez baitzuen prezio handiago bat ezartzen, baizik eta aurreko auzitegiari pasatzen baitzion prezioa beste irizpide tekniko batzuen arabera birkalkulatzeko betebeharra.

7. Ea ziur dakizuen prozeduraren une hartan prozeduran esku hartzeko zegoen aukera bakarra zela peritu-txosten hari alegazioak aurkeztea; are gehiago, harekin ados ez egonez gero.

8. Ea ziur dakizuen Gobernuaren Aholkularitza Juridiko Zentrala izan zela peritu-txosten haren aurkako alegazioak aurkeztu zituen, Garraioaren Hiriaren proiektuaren ardura zeukan sozietate publikoaz gain. Ea ziur dakizuen Nafarroako Gobernuak berak nahiz Nasuvinsa sozietatearen administrazio-kontseiluak txostenaren idazketan parte hartu ote zuten.

9. Aholkularitza juridikoak nahiz Nasuvinsaren legezko ordezkariak aurkeztutako alegazioak eskatzen ditugu.

10. Ea uste duzuen prozedura honetan, behin peritu-txosten berria bidalita, txosten horri ez zitzaiola alegaziorik aurkeztu beharko, eta hortaz hura ontzat jo beharko zela eta, orduan, epai berri baten zain gelditu gabe, Nafarroako Gobernuaren eledunak adierazi zuen bezala, "kaltetutako partikularrekin mahai batean eseri beharko zen konponbide bat negoziatzeko, beharbada denen onerako izanen zena eta gaur daukagun egoera honetara ekarriko ez gintuena."

11. Ea uste duzuen Nasuvinsaren administrazio kontseiluak uko egin beharko ziola, bere erantzukizuna betez, alegazio-idazki bat aurkezteari, eta arestiko puntuan adierazten den moduan jokatuta.

12. Hala baldin bada, jakin nahi dut ea gaur egungo Nafarroako Gobernuak zergatik iragartzen duen orain epai horren aurkako errekurtsio bat jarriko duela Auzitegi Gorenean eta zergatik ez den jotzen aipatu negoziatziora.

13. Ea badakizuen Nafarroako Gobernuak diru-kantitate handi bat gorde ote zuen aurrekontuan, balizko aurkako epai baten inpaktua moteltzeko, eta zenbatekoa izan zen. Ea badakizuen, halaber, Gobernuak erabaki ote zuen balizko aurkako epai baten kostua bere gain hartzea, halatan eraginik izan ez zezan Nasuvinsa sozietate publikoan.

14. Desjabetze hori gertatu zen urteetan Nasuvinsa sozietate publikoak etorkizuneko industria-erabileretarako lur-desjabetzeko prozesuetan ordaindu zituen prezioak eskatzen ditut, aurreko hiru urteetakoak eta geroko guztietakoak barne.

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an.

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa.

LUIS ZARRALUQUI ORTIGOSA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak aurkeztutako galdera, zuntz optikoko sareek Nafarroan duten garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Luis Zarraluqui Ortigosa foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Legebiltzar honetan behin baino gehiagotan jorratu da gure erkidegoan zuntz optikoko sareak

garatzearen auzia. Horien egoerari buruzko informazio egiazkoa eta zehatza edukitzeko, gai horren honako alderdiei buruzko galdera hau onartzea eta izapidetzea eskatzen dut, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

- Zuntz optikoko sareek, bai publikoek bai pribatuak, Nafarroako Foru Komunitatean duten garapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafiko eta idatzia, sare nagusiak eta banaketakak berezita.

- Enpresa-jarduerak kokatuta dauden eremu edo industrialdeetan sare horiek duten hedapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafiko eta idatzia.

- Nafarroako Gobernuaren edo haren sozietate publikoen ekipamendu, zuzkidura eta bulego publikoetan sare horiek duten hedapenari buruz eskuragarri dagoen informazio grafiko eta idatzia.

- Sare horiek gure erkidegoan hedatzeko planei buruz eskuragarri dagoen informazioa; bereziki, sare publikoari dagokionez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, idatziz erantzun dakizkion.

– Hezkuntza Departamentuak zer jarduera eta garapen-epe aurreikusten ditu atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzari dagokionez?

– Hezkuntza Departamentuak zer jarduera eta garapen-epe aurreikusten ditu atzerriko hizkuntzetako irakasleen prestakuntzarako laguntzei dagokionez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jarduerari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzen sustapenerako Hezkuntza Departamentuaren ikastaro eta jarduerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentaltaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zer jarduera eta garapen-epe aurreikusten ditu Hizkuntzen Ikaskuntzako Nafarroako Zentroari egindako agindu bidez atzerriko hizkuntzetako ikastaroak egin eta haiek sustatzeko?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

– Hezkuntza Departamentuak zer jardura eta garapen-epe aurreikusten ditu atzerriko hizkuntzen erabilera hobetzeko ikastaroei dagokienez?

Iruñean, 2016ko otsailaren 25ean.

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Lantaldea, Nafarroako erakundeen zorraren zenbatekoa, horren justifikazioa eta horri aurre egiteko aukerak aztertzea.

OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordeak 2016ko otsailaren 24ko erabaki bat igorri dio Legebiltzarreko Mahaiari, Nafarroako erakundeen zorraren zenbatekoa, horren justifikazioa eta horri aurre egiteko aukerak aztertzeo lantaldea eratzeari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 55.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Erabaki hori jasotzat ematea.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia, Nafarroako erakundeen zorraren zenbatekoa, horren justifikazioa eta horri aurre egiteko aukerak aztertzeo lantaldea eratzeko

“1. Ogasuneko eta Finantza Politikako Batzordean lantalde bat eratzea, Nafarroako erakundeen zorraren zenbatekoa, horren justifikazioa eta horri aurre egiteko aukerak aztertzea.

2. Epe bat ematea, 2016ko martxoaren 4ko 12:00ak bitartekoa, parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu lantalderako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordeztuko dena.

3. Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du lantaldea zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

4. Azterlana egiteko epea lantaldea eratu eta sei hilabetera bukatuko da.

5. Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen osaerari eta eraketari buruz”

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2016ko martxoaren 29tik apirilaren 1era bitarteko egunetarako lanaldia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko otsailaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2016ko otsailaren 24koa, non eskatzen baitu 2016ko martxoaren 29tik apirilaren 1era bitarteko lan-asteen goizeko lanaldia ezartzea.

Egun horietarako ez dago aurreikusita arratsaldeko parlamentu-jarduerarik. Parlamentuaren eta aipaturiko Langile Batzordearen arteko 2002 eta 2003. urteetarako Hitzarmeneko 3.2.a) idatzatian xedatzen da Aste Santuaren ondoko astean goizeko lanaldia ezarriko dela Parlamentuko lanari buruzko aurreikuspenek horretarako aukera ematen badute.

Ondorioz, Nafarroako Parlamentuaren eta Langileen Batzordearen arteko 2008-2011 eperako Hitzarmeneko 10. idatz-zatiarekin eta arestian

aipaturiko Hitzarmeneko 3.2 idatz-zatiarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Goizeko lanaldia ezartzea 2016ko martxoaren 29, 30 eta 31n eta apirilaren 1ean. Halere, hori ez da eragozpen izanen, goizeko ordutegitik kanpo Legebiltzarreko lana baldin badago, etorri beharreko langileak etor daitezzen, eta zerbitzu-ematean sor litezkeen beharizanen arabera erantzuna emateko langile-kopurua espero da.

2. Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia aldatzea, Mahaiaren 2015eko abenduaren 14ko erabakiaren bidez onetsitakoa; halatan, 2016ko martxoaren 29, 30 eta 31n eta apirilaren 1ean 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

